

Michel Labeguerie eta dantza

Michel Labèguerie et la danse



Xabier Itzaina*

Kantu berritzaile izan aintzin, Michel Labèguerie ohidurazko dantzeri interesatu da, 1930-1940 urteetan bereziki. Dantzari buruz egin eta izkiriatu dituen gauzek erakusten dute gazte denboran Michel Labèguerie hiru munduen artean kokaturik zagoela, orduko bertze euskaldun gazte aintzen gisarat: hegoalde tik jirikako abertzale tasunaren mundua, frantses erregionalismo kulturalarena eta lapurtar, edo zehatzkiago Uztaritzar ohidurarena. Junta hortan izanki eta, Michel Labèguerie gaur egun dantzaren munduak bere buruari egiten dazkon galde aintzen aintzindari izan de la eman ditaike.

Giltz-Hitzak: Dantza. Ohidurak. Abertzalegoa. Erregionalismoa.

Avant de devenir le fer de lance de la nouvelle chanson basque, Michel Labèguerie s'est intéressé aux danses traditionnelles, en particulier dans les années 1930-1940. Son activité et ses écrits témoignent, à l'image de beaucoup de jeunes de sa génération, d'une position à cheval entre trois mondes: l'univers de signification fourni par un nationalisme basque importé du Pays basque sud, l'influence des idéologies régionalistes / provincialistes françaises, et enfin, la tradition labourdine - celle d'Ustaritz en particulier, qui renvoie à d'autres codes et systèmes de référence bien spécifiques. A partir de ce croisement, M. Labèguerie produit une réflexion qui anticipe en grande partie sur les interrogations ultérieures du monde culturel basque.

Mots Clés: Danse. Tradition. Nationalisme. Régionalisme.

Antes de ser el renovador de la canción, Michel Labèguerie se interesó por las danzas tradicionales, particularmente durante los años 1930-1940. Las cosas que hizo y escribió en torno a la danza muestran que durante su juventud Michel Labèguerie se ubicaba en tres mundos, como tantos otros jóvenes de entonces: el mundo del nacionalismo venido de Egoalde, el regionalismo cultural francés y las costumbres labortanas, o más exactamente uztaritzarras. Situado en tal punto de encuentro, puede decirse que Michel Labèguerie fue precursor en muchas de las cuestiones que hoy día se plantea el mundo de la danza.

Palabras Clave: Danza. Costumbres. Nacionalismo. Regionalismo.

* Maldargia. F64250 Itsasu

MICHEL LABEGUERIE ETA DANTZA

«Dantzari haundi Arruntzako»¹

Hemen aipatzera noan gaia ez da baitezpada erdi-erdikoa Michel Labèguerie-ren bizian. Halere, naski merexi duen aipatzea kantari lapurtarrak dantzaren mundutxoarekin ukan duen harremana, gizona beraren ekintzak estakuru bezala baliatuz orduko giroaren aipatzeko.

Michel Labèguerie dantzari ohartzen hasten da bere gazte denboran, erran nahi baita bigarren gerla aintzinttoan eta okupazioe denboran. Kantu bermitzaile izan aintzin, Labèguerie-k bere erroak baretik ezagutu nahi izan zituela usu ahanzten da. Gutik dakite funtsean 1930-1940 urteetan bi dantzari multxo muntatzeaz gain (Bordalen eta Uztaritzen), lapurtar ixtudiant gazteak dantza eta oroz gainetik kantu zahar zonbeit bildu zituela, eta zehazki aztertu. Michel Labèguerie-k dantzari buruz egin eta izkiriatu dituen gauzek erakusten dute bere gazte denboran hiru munduen artean zela, orduko euskaldun gazte ainitzen gisara.

Lehen mundua abertzaletasunarena da. Hegoaldetik jinikako eredu berri bat sartzen da Ipar Euskal Herrian 1930 urteetan. Mogimendua haundituz joanen da 1936ko gerlatik landa, ideiekin batera gizonek ere dutelakotz muga pasatuko. Orduan hasten dira Iparraldean Hegoaldeko dantzen ikasten, eta bereziki Bizkaia eta Gipuzkoakoak, orduko interpretazioeanean probintzia horietako dantzek dutelakotz hobekienik «euskaltasuna» adierazten. Badakigu sail hortan PNV-k zer lan egin duen Durangaldeko ezpata-dantzarekin bereziki, edo ze bilakaera simboliko ezagutu duen soka-dantzatik atera aurrekuak (Sanchez Equiza, 2000). Michel Labèguerie-k mundu hori baretik ezagutzen du: 1932an Uztaritzeko dantza taldearen sortzaile batetarik bat da, eta taldearen txistulari ere bilakatzen da, (Aita Hilario Olazararen eskutik). Lehen eredu hortan beraz, hegoaldeko dantzak dira oroz gainetik emaiten, «Zazpiak bat» irudimen politiko-kulturalaren izenean.

Bigarren mundua frantses erregionalismoarena da. Gerla aintzinean, eta gerla denboran erregimen berriarekin indartuko da tendentzia hori. Frantziar holako kutsu erregionalista bat hedatzen ari da. Ideologia aldetik, gauza guti du ikusteko hegoaldetik jinikako abertzaletasunarekin, baina sendimendu probintzialista horren adierazpen kulturaletan, folkloreak garrantzi handia du baita ere (Duflos-Priot, 1995). Vichy-ko gobernuak bereziki bultzatzen ditu tokiko kulturaren berriakurketa horiek. Alabainan, Euskal-Herria bezalako tokietan, holako sendimendua eta Francoren kontra asaldatu zen abertzaletasunaren artean kontra-erranak gero eta larriago izanen dira, krisi haundiak sortuz mogimendu eta presunen artean. Tentsio horien erdian eta gerla denboran agertu zen bigarren Aintzina mogimenduan parte hartu zuen Labègueriek, eta

1. Julien Vinson-en *Le Folklore du Pays Basque* (Paris, Maisonneuve et Larose, 1884, p. 229) liburutik hartu eran-zaharra, idazleak berak Uztaritzeko oihanean bildu zuena 1869ean.

bereziki 1943an egituratu zen Eskualdun Gazteen Batasuna elkartearen. J.-C. Larronde (Larronde, 1997) historiazaleari zor diogu elkarte horren berri ukaita, folklore munduaren lehen egituratze hori gutiz gehienek aspalditik ahanzia zutelakotz. Pétainen ustezko Frantzia erregionalistan, eskual kulturaren mundutxoak bere burua egituratzen segitzen du. Eugène Goyhenetchen eraginez, Pariseko ikasleak dira lehenik Erepika elkartearen biltzen, eta heiek dute eskualdun gazteen biltzar haundi baten muntatzea erabakitzen. Uztaritzen iragaiten da 1943ko apirilaren 27an, eta orduan dute sortzen eskual kulturaren aldeko Eskualdun Gazteen Batasuna. Multxo horrek nahasten ditu aldarrikapen kultural, sozial eta politikoak, hizkera erregionalista orokor batean. Dantza eta kantu ikastaldietaz gain, batasunean diren taldeek behar luzkete baita ere euskarazko ikastaldiak eman. Dena den, dantza eta kantuaren mundua egituratzen hasten da elkarte horren bidez: idazkaritza bat bada, talde bakoitzak badu bere ordezkaria, aholkulari tematikoak ere badira. Kultura definitzailek beren saila banatzen dute eremuka sailkatuz: hizkuntza eta historia, koregrafia eta soinua, arazo sozialak, mariñelak, abesbatzak, arazo ekonomikoak eta neska gazteak (Begiraleak). 1944eko martxoan, hamabost bat dantza taldek (lapurtarrak gehienak, eta Bordele, Parise eta Baigorriko multxoak), osatzen dute batasuna. Orotarat, 150 bat dantzari dira horrela elkartuak. Gaia hemen sobera barmatu gabe, azpimarra dezagun halere folkloriko egituratze horren berezitasuna: elkarte hortan dihardutenak bi munduen artean kokatuak dira. Eskualdun mundu batetarik heldu dira, bainan berdenboran mundu hortarik ateratzeak deie beren berezitasunaren konzientzia bat eman. Eta hortarik abiatuko dira, zer den eskualduna eta zer den kulturala definitzeko. Ez da ustegabekoa Parisetik abiatu bada mogimendu hori.

Michel Labeguerie ere bi mundu horien artean da. Eskualdun ingurumen batetarik aterara da, bainan Bordelen ixtudian egoitearekin zako hain segur jin bere nortasun kulturaren arrangura hori. Gorago aipatu Uztaritzeko taldeaz gain, Labègueriek Bordeleko Irrintzi dantzari taldearekin du zinez landuko bere gaia. Eskual Gazteen Batasunean, Labègueriek kargu desberdin batzu betetzen ditu: Bordeleko Irrintzi taldearen ordezkari (eta txistulari), «koregrafia eta soinua» eta «abesbatzen antolaketa» batzorde teknikoetan partaide da, eta dantza irakasle da Jean Nesprias, Pierre Hirigoyen eta Pierre Ospitalekin batera.

Bainan aktibitate folkloriko horri gehitzen zaio biltzaile lan bat, eta hor erran ginezake hirugarren mundu baten jasta emaiten daukula Labègueriek: lapurtar, eta xehekiago Uztariztarren mundutxoarena hain xuxen. Ber sort-herriko ohidureri buruz duen atxikimendua erakutsiko du, bertzeak bertze, Baionako Eskual Erakustokian emaiten duen dantzeri buruzko hitzaldian 1944eko otsailean; edo Aintzina aldizkarian ere agertzen dituen artikulutxoetan, izan dadien Lapurdi, Baxe-Nafarro eta Xiberoko ihauterieri buruz, irri-dantzeri buruz edo fandangoari buruz (Labèguerie, 1942, 1943)². Argi-

2. Ahatik, bestaldeko dantzen «inperialismoaren» kontra asaldatzen den artikulutxo bat ez dakigu hark izkiriaturia denez (Itun-ttun, 1942). Fandangoari dagokionez, badakigu dantza hori buruz lan oso baten agertzekotan zela Labegueriek gerla bururatzean (Aintzina argitaletxean), bainan ez dugu argitalpen horren heexarik atxeman ez Baionako liburutegian ez Euskal Erakustokian.

talpenez gain, zinezko miaketa lan bat eremaiten du ixtudiant gazteak 1942 eta 1948 artean, bereziki Uztaritze inguruan. Berak utzi esku-izkiribu batzuetan aurkitzen ditugu Uztaritze, Haltsu, Jatsu eta Larresoron bildu kantu eta dantza zonbeit. Bilketa lan hori balio haundikoa da. Kantu bakotxarentzat Labèguerie-k egiten ditu komentario zehatz batzu, bereziki doinuari buruz. Hor Aita Donostia eta Lafitten eragina ezagun dela ez da dudarik³. Doinu guzientzat badakigu nori, nun eta noiz entzuna dituen, kantuen testuingurua zoin zen (ostatu kantu, eztei-soinu, amodiozko kantu...), eta aintzineko folkloristek (Gallop, Donostia, Barbier...) zer bertsionetan kausituak zituzten kantu berberak. Biziki lan xehea beraz, erakusten daukuna kantu berri egiten hasi beino lehenago, Labègueriek untsa miatu zuela kantu xaharra. Dantzen lekua xumeago balin bada ere, azpimarratzekoa da Faustino Pastor, gudari ohiak erakatsi gipuzkoako dantzez gain (Alpargatak urratu, Zagi dantza, Arku dantza...), Labègueriek kasik ahantziak ziren lapurtar doinu zahar batzu bildu dituela (ihauterietako Bizar dantza eta Kadira dantza; adibidez). Emaiten dituen beste kantu batzuek ere badute egia erran dantza iduri edo kutsu bat (Ay, ay, nere maitea Uztaritzeko ostatu kantuan, adibidez, Mutxiko luzeen parte bat kantatzen da). Azkenik, ohart-araz dezagun emaiten duela Arruntzeko Hypolyte xiribikariak jotzen zuen eztei-soinu bat. Gutida, bainan balio handia du holako lekukotasun batek, dakigularik Hypolyte Hiriart dantza maisu garrantzitsua izana zela Uztaritze inguruan XIXgen mendearen bururatzean.

Uztariztar gisa, Michel Labèguerie biziki fite ohartzten da tokiko ohidurek beren balio propioa badutela. Eta nahiz Hegoaldetik ekarri dantzak ikusi eta erakasten dituen (txistulari bezala), beti atxikitzen du lotura berezi bat bere sort-herriarekin. Aintzina aldizkarian agertu artikuluetan untsa azpimarratzen du tokiko ihauteri, maska, dantza-jauzi eta iri-dantzak zaindu behar direla. Gaur egun, ohar arrunta bat bezala agertzen ahal ditake holako adierazpen bat, bainan orduko giroan, merezimendu handia bazuela erran daiteke. Uztaritze, alabainan, Lapurdi erdi-erdian da, eta probintzia hortan dituzte lehen-lehenik hiltzerat edo hil-zorian utzi beren ohidura dantzatuak. Nori axola zako 1930-1940 urteetan jakitea Uztaritzen dela doietarik zaindu ihauterien ohidura berezi bat, biziki kodigo xehe eta zaharrekin? Nori axola zako Uztaritze-ko ondare musikal aberatsaren biltzea, Arruntzako Hypolyte Hiriart xiribikariaren orroitzapen freskoaren aipatzea, edo Arruntzako Socodiabeherre «Xatorra» soinulari leinuaren jakitatearen lantzea? Alabainan, 1940etik goiti, jendeak bazuen bertze arrangurarik. Bainan ohargarri da halere dantzaren inguruan 1930etarik goiti eta 1943an ere ageri den dinamikan, leku guti uzten zitzakola tokiko ohidurari, eta sail hortan kanpotik jinikako - Ingalaterratik bereziki (Gallop, 1948) (Alford, 1937) - ikerleak izan direla lapurtaren eza-zolkeria hori lehenik azpimarratu zutenak.

3. Huna adibidez zer dion Uztaritzen entzun zinka kantu batez (chanson satirique): «Chantée par Dominique Ithurralde à Ustaritz. Elle l'avait entendue à Louhossoa, durant sa jeunesse. Composée à l'adresse d'un aubergiste et de sa femme. Rodney Gallop, dans La chanson populaire basque (Musée Basque) donne une version rythmiquement différente entendue à Ixassou. Dans sa version, la mesure change de 3/4 en 4/4. R.A. Gallop ne donne qu'un couplet, le n° II ci-dessus.»

Neuri batean, sail hortan ere aintzindari izan da Labèguerie, nahiz ez den erraiten ahal ikaragarriko lana egin duela dantzari buruz. Uztaritze berari dago-kionez, pentsatzen dut gehiago zor diegula Louis Dassance (Dassance, 1927) edo Jean-Michel Guilcher bateri (Guilcher, 1969, 1984) Labèguerie-ri beino. Michel Labèguerieren lehen arrangura kantua da. Eta horrek du gaina hartuko, denen onetan gainerat. Labèguerie ez da tradizionalizta, eta sorkuntzaren bidea hautatuz aski fite utziko ditu beren gisara folkloristen arteko burura-ezin eztabaida hutsak. Bainan halere bere esku-izkribuek erakusten daukute dantza eta kantu zaharen arrangura hori bazuela, eta hortan mereximendu haundia dauka. Nahiz ez duen inkesta sistematikorik egin, gaur egun dantzaren munduak bere buruari egiten dazkon galde ainitzen aintzindari izan dela erran daiteke.

MICHEL LABÈGUERIE ET LA DANSE

Pour modeste qu'elle soit, la contribution de Michel Labèguerie à la connaissance et au devenir des formes dansées traditionnelles en Pays Basque nord mérite d'être signalée. En menant une action dans ce domaine -principalement dans les années 1930-1940-, Michel Labèguerie se situe au croisement de trois schèmes interprétatifs de la danse, qui correspondent à autant de représentations, historiquement et politiquement situées, alternativement associées et concurrentes, de la culture basque.

Premièrement, la relecture de la danse par M. Labèguerie porte la marque de la version dominante du nationalisme basque, celle engendrée et diffusée par le Parti Nationaliste Basque (PNV). Fondé à la fin du XIX^e siècle, le parti a évolué progressivement de l'aranisme radical originel vers un nationalisme démocrate-chrétien dans les années 1930. Politiquement plus ouvert à la négociation -l'enjeu statutaire prime alors sur l'objectif d'indépendance-, le PNV reste cependant culturellement et religieusement intransigeant. Un tel nationalisme culturel puise régulièrement dans le «stock» de symboles, de rituels et de croyances répartis de façon diffuse dans la société basque, et qui constituent autant de réservoirs de sens pour une idéologie en quête de légitimation. La danse est particulièrement visée par ce travail de traduction politique ayant pour objectif de recréer de l'unité là où la réalité apparaît infiniment plus éclatée. Le détournement sémiotique du cycle de la danse des épées du Duranguesado est, évidemment, l'exemple type d'une telle entreprise. Plus récemment, l'aurreku extrait des danses en chaîne protocolaires du Guipúzcoa et de la Biscaye a connu un processus similaire de «nationalisation», et ce, bien au-delà des seuls cercles nationalistes ou nationalistes (Sánchez-Equiza, 2000). En 1936, les idées passent la frontière avec les hommes, et le modèle commence à se propager au nord, avec des traductions diverses (Itcaina, 1996, 2000). Mais l'influence de ce modèle culturel s'était déjà faite ressentir dès le début des années 1930: en 1932, par exemple, les Labèguerie prenaient part à la formation de l'un des premiers groupes folkloriques du nord à Ustaritz. Sous l'égide du capucin navarrais H. Olazaran de Estella. M. Labèguerie apprendra à jouer du txistu - autre impor-

tation - et perfectionnera cet apprentissage au contact de réfugiés dans le cadre d'un groupe de danse (Irintzi) à Bordeaux. Ainsi, à Ustaritz comme à Bordeaux, les danses du sud sont-elles enseignées au nom d'un même postulat d'homogénéité culturelle.

Deuxièmement, il est nécessaire de souligner l'influence du régionalisme / provincialisme français, très en vogue dans les années 1930, et qui connaîtra une consécration institutionnelle partielle sous le régime de Vichy. On sait l'importance que cette idéologie ruraliste accordait aux cultures de terroir, et en particulier au folklore (Duflos-Priot, 1995). En terrain basque, la situation est ambiguë: les promoteurs d'une culture basque autonome se retrouvent dans une position délicate, tiraillés entre une contradiction sans cesse plus importante entre le régionalisme rassurant - et bien toléré par la hiérarchie catholique - venu du nord, et le nationalisme du sud qui avait fait un choix politique inverse en 1936. La folklorisation est à l'œuvre dans les deux perceptions, mais ses conclusions politiques sont diamétralement opposées, surtout dans une situation de guerre qui ne doit comporter fatalement que deux adversaires. Les contradictions provoqueront d'ailleurs la fin du deuxième Aintzina (Larronde, 1997). Labèguerie participe à ce mouvement, en publiant quelques articles sur les danses labourdines dans Aintzina, en prenant part, au nom du groupe Irintzi de Bordeaux, aux commissions «musique et chorégraphie» et «chorales» au sein de la fédération Eskual Gazteen Batauna. Il enrichit cette activité folklorique par quelques travaux de recherches, qui se concrétisent notamment par une conférence sur les danses prononcée au Musée basque de Bayonne le 21 février 1944. Or, les articles qu'il publie dans Aintzina en particulier témoignent d'un positionnement plus complexe qu'il n'y paraît vis-à-vis des interprétations folkloriques des danses traditionnelles. Même s'il se prête au jeu favori des folkloristes, à savoir celui de la quête des origines avec un article sur le Fandango⁴, son intérêt pour les danses carnavalesques et les danses-jeu de Soule, mais surtout du Labourd et de Basse-Navarre (kaira dantza, kilun dantza, zartain dantza, barber dantza) (Labèguerie, 1942, 1943) témoigne du souci, alors bien marginal, de se démarquer d'une domination exclusive des formules importées du sud. Un article de la même veine, que l'on ne saurait cependant attribuer avec certitude à M. Labèguerie, s'élevait en 1942 contre «l'impérialisme» des danses du sud et déplorait l'abandon progressif du répertoire local, en particulier du cycle des sauts basques (Ttun-ttun, 1942)⁵.

La sensibilité aux formes locales de la tradition autorise une transition vers le troisième «monde» de référence de M. Labèguerie: celui de la tradition labourdine, et plus précisément celle d'Ustaritz. A l'époque où M. Labèguerie commence à s'intéresser à la danse, les usages carnavalesques sont encore en vigueur dans la plupart des villages de la basse vallée de la Nive, et

4. Qui aurait dû déboucher sur la publication d'un fascicule aux éditions Aintzina en 1945.

5. Le débat, d'ailleurs, reviendra périodiquement sur le devant de la scène culturelle basque dans l'après-guerre. Voir par exemple: (Gallop, 1948) (Oyhanburu, 1948).

tout particulièrement à Ustaritz, qui conserve (encore aujourd'hui) un cortège particulièrement étoffé. Dès 1927, Louis Dassance avait signalé la richesse symbolique du défilé hivernal des *kaxkarot*, *ponpiet*, *kotilun gori*, *banderari*, etc. (Dassance, 1927), mais il faudra attendre les années 1960 pour qu'une description plus systématique soit effectuée (Guilcher, 1969). M. Labèguerie ne fait pas œuvre d'ethnographe sur ce terrain, mais plusieurs indices témoignent de sa connaissance intime de la tradition locale: ses articles dans *Aintzina* sur les usages camavalesques, ses retranscriptions des danses-jeu ou pantomimes labourdins (danse des chaises, danse du barbier, etc.). Il donne également quelques mesures, transmises par son père, d'une pièce nuptiale (*eztei-soinua*) extraite du répertoire du ménétrier d'Arrautz, Hypolyte Hiriart. C'est peu, mais c'est beaucoup, si l'on considère que ce maître de danse et violoneux de la fin du XIX^e siècle n'a laissé, à notre connaissance, aucun écrit, contrairement, par exemple, à son homologue bas-navarrais Faustin Bentaberry. De même, l'information, même embryonnaire, sur les musiques de noces vient-elle combler une lacune importante en Labourd, et autorise-t-elle une première comparaison avec des vallées au répertoire beaucoup mieux conservé en la matière, comme celle du Baztan. Les paroles ironiques rajoutées sur le court thème musical nous donnent également l'image d'une tradition en mouvement, ouverte à toutes les interprétations. Les incursions, même ponctuelles, de M. Labèguerie dans la tradition de son village, permettent en tous les cas de mettre l'accent sur la tradition musicale labourdine en général, et sur celle d'Ustaritz en particulier, tradition qui a paradoxalement été écartée par les définisseurs d'une culture basque que l'on voulait normée et unifiée, au risque de la standardisation. Ainsi a-t-on vu disparaître le ménétrier et maître de danse de Bidart Pili Tafemaberry, sans que l'intégralité de son répertoire ne soit recueilli, en dépit des efforts méritoires de P. Betelu et de J. Espilondo. La famille Socodiabehere d'Arrautz a mieux transmis son savoir, mais le répertoire des sauts basques s'est là aussi beaucoup appauvri en quelques générations. Au total, il faudra attendre la fin des années 1970 pour que la tradition locale suscite à nouveau un intérêt certain, mais sans la présence des informateurs les plus autorisés. A ce titre, les questions que posait M. Labèguerie du haut de ses vingt ans, et qui préfigurent son éloignement vis-à-vis des débats sans fin entre «folkloristes» de toutes sortes, avaient valeur d'anticipation sur les réflexions ultérieures que produirait sur lui-même le monde culturel basque.

ITURRIAK / SOURCES

Ecrits de M. Labèguerie sur la danse. M. Labèguerie-k dantzari buruz idatzia-
k.

1.1. Esku-izkribuak / Sources manuscrites

Kantu zaharrak: hogoitahamar bat kantu zahar, batzu bertsi-
one desberdinekin, eta denak komentario zehatzekin. Une trentaine de chants anciens,
avec paroles, musiques et commentaires.

Haurren erranak eta kantuak: Kanboko Michel Larroulet-eri ikasiak, Bordelen, 1945. Comptines et chants d'enfants, recueillis auprès de Michel Larroulet, Bordeaux, 1945.

Euzko kantu eta dantzak deitu cahier bat, 1943 garren urtean bilduak (cahier Chants et danses basques, recueillis en 1943).

Capdeville, Arruntzeko pertsulariaz: bizia eta hiru kantu (1943)

Bertsularien doinuari buruz azterketa bat: quelques considérations à propos du concours d'improvisation de Sare, 5 avril 1948.

Cahier de musique: zimborroak, hitzak eta doinuak. Brouillons, paroles et musiques.

1.2. Iturri inprimatuak / Sources imprimées

LABEGUERIE Michel, «La danse au Pays Basque», Aintzina, 3 (1), 1942, p. 13-15.

LABEGUERIE Michel, «Cortèges et danses du Carnaval en Soule, Basse-Navarre et Labourd (I)», Aintzina, 3 (2), 1942, p. 18-21.

LABEGUERIE Michel, «Cortèges et danses du Carnaval en Soule, Basse-Navarre et Labourd (II)», Aintzina, 3 (3), 1942, p. 8-10.

LABEGUERIE Michel, «Cortèges et danses du Carnaval en Soule, Basse-Navarre et Labourd (III)», Aintzina, 3 (4), 1942, p. 3-5.

LABEGUERIE Michel, «Cortèges et danses du Carnaval en Soule, Basse-Navarre et Labourd (IV)», Aintzina, 3 (5), 1942, p. 8-12.

LABEGUERIE Michel, «Notes sur les danses du Pays Basque: kadira dantza», Aintzina, 4 (5), 1943, p. 12-14.

LABEGUERIE Michel, «Le Fandango», Aintzina, 4 (5), 1943, p. 17-20.

1.3. Bibliografia / Références bibliographiques

ALFORD Violet, Pyrenean festivals, Londres, Chatto & Windus, 1937.

AINZINA, «Eskualdun Gazteen Batasuna», Aintzina, juin 1943, p. 2.

DASSANCE Louis, Les sauts basques et les vieilles danses labourdines, Bulletin du Musée Basque, 1927, 4 (1).

DUFLOS-PRIOU Marie-Thérèse, Un siècle de groupes folkloriques en France, Paris, L'Harmattan, 1995.

- GALLOP Rodney A., «Innombrables extravagances», *Eusko-Jakintza*, 2 (1), 1948, p. 37-42.
- GUILCHER Jean-Michel, «Danses et cortèges traditionnels du Carnaval en pays de Labourd», *Bulletin du Musée Basque*, 1969, 46 (4), p. 157-189.
- GUILCHER Jean-Michel, *La tradition de danse en Béarn et en Pays Basque français*, Paris, Maison des Sciences de l'Homme, 1984.
- IIICAINA Xabier, «Danse, rituels et identité en Pays basque français», *Ethnologie française*, 1996, 26 (3), p. 490-503.
- IIICAINA Xabier, «Herri kulturatik euskal kulturarat. Dantza Ipar Euskal Herrian», *Sukil, cuadernos de cultura tradicional*, 3, Iruña, Ortzadar, octobre 2000, p. 324-340.
- LARRONDE Jean-Claude, *Le mouvement Euskalerriste (1932-1937)*, *Euskalerrizaleen biltzarra, el movimiento Euskalerrista*, Bilbao, Fondation Sabino Arana, 1995.
- LARRONDE Jean-Claude, «La culture basque sous l'occupation», *Cuadernos de lengua y de literatura, Oihenart n° 14, Gerra eta literatura (1914-1944)*, Donostia, *Eusko-Ikaskuntza*, 1997, p. 221-229.
- OIHANBURU Philippe, «Quelques mots sur les danses basques», *Eusko-jakintza*, 2 (6), 1948, p. 557-562.
- SANCHEZ EQUIZA Karlos, «Ideologías, identidades y tradición en la danza tradicional vasca: el caso del Aurreku», *Sukil, cuadernos de cultura tradicional*, 3, Iruña, Ortzadar, octobre 2000, p. 341-352.
- TTUNTTUN, «Bietan pika!», *Aintzina*, 1942, *Urria-Hazila-Abendoa*, 10-11-12, p. 66-67.